

**35.4.** Etorkizuna

Nire gurasoak urduri jartzen ziren amatxi etortzekoa zen bakoitzean. Oso gutxitan etortzen zen. Medikutarako ordua goizean goiz zuenetan bakarrik. Amatxi, aitaren ama, urruti bizi baita. Urruti, herrira oinez jaitsi eta bata bestearen segidan autobusak eta, presa, ezina edo pereza izanez gero, taxia ezinbesteko duenarentzat. Autoan minututan konta liteke joan-etorria. Horregatik joaten zen aita haren bila eta etxera ekartzen bezperatik.

Etorkizuna irakurtzen du amatxik. Asmatu, zehaztu zuen behin amak, irakurri ez. Amatxik entzun eta arrazoi eman, horixe, asmatu egiten zuela. Bete-beteen asmatu ere. Asmatuko ez balu, inor ez litzaiokeela hurbilduko.

Ama ez zitzaion hurbiltzen. Juxtukoa bakarrik. Kortesiazo muxu pareta ematen zioten elkarri lehen. Amatxik burua apartatu zionetik ama ez zen gehiago saiatu. Aitak txikikeria hura noiz ahaztuko ote zuen galdetu zionean etorkizuna asmatzea beste baten gaitasuna zela gogorarazi zion amak.

Amatxiren gaitasunik gabe asma nezakeen nik etortzekoa zela. Inork esan gabe. Batik bat inork ez zuelako ezer esaten. Galdera edozein zela ere erantzunik luzeena hitz bakarrekoa bihurtzen zenean, etortzearen seinale. Ez nintzen noiz zehazteko gai. Amatxi ere ez bere iragarpenetan. Zer bai, baina noiz beti etorkizun.

Txikitan nire ohearen ondokoa prestatzen zion amak. Neska handia nintzela eta ohe handiagoa behar nuen aitzakian kendu zuen logelatik. Gero aitak ganbaratik jaitsi behar izaten zuen tolesgarri bat eta egongelan prestatu.

Etxe txikia da gurea. Baina ez diogu inoiz elkarri trabarik egin amatxi etortzen zenetan bezala. Aita eta ama, bata bestearengandik ihesi, amatxi eta ama pasilloan ez gurutzatzeko ahalegin antzuan, eta ama, amatxiri nirekin bakarrik geratzeko saiakerak nola oztopatu asmatu ezinean. Eta denak disimuluan.

Amak beti izaten zuen lanean eginbeharrekoren bat amatxi etortzekoa zen iluntzeetan, baina ez zen berandutzen aita oheratu eta gu biok bakarrik geratzeko adina. Aita inoiz baino goizago loguretan zen. Ez dakit ama oheratu ere egiten ote zen. Gau-beila eginda bezala jaikitzen ziren eta ama ez zen lanera joaten ni eskolara baino lehen. Eta dena disimuluan.

Astebetara esaldi luzeagoz erantzuten zuten. Bizpahiru geroago hasten ziren galdera beharrik gabe hizketan. Ez zuten amatxiz ezer esaten nire aurrean.

Amatxi etxean izan zen azken aldian esaldi luzeak harekin joan ziren.

Handik aste batzuetara aita institutuan agertu zen. Hura han ikusi eta amatxi hil nuen. Bizkarretik heldu eta, “Zer?, zurito bat hartuko al dugu?” bota zidan, “Ez da ezer gertatzen” esan nahian. Nik banekien bazela zerbait. Ezer gertatu ez balitz ez ginen biok tabernan sartuko. Eta ez. Ez nuen zuritorik eskatu. Zuritoak lagunartean bakarrik

▲ eskatzen diren adin hartan nengoen. Mostoarekin konformatu nintzen, aitak berea nola irensten zuen begira. Eta bai. Amatxi zen gaia. Ez haren heriotza, ordea. Aspaldian ez zebilela ondo esan zidan. Ez nion nik ondoez handirik sumatu azken bixitan, eta halaxe atera zitzaidan. “Badakizu nolakoa den amatxi, ahuldaderik ez agertzeagatik”, baina adinean aurrera zihoala eta laguntza behar zuela. Haren etxera igoko zela denboraldi baterako. Ez zekien astea edo bi hilabete. Ama zuen. Hainbeste zor zion. Deituko zidala tarteka kobertura topatzen bazuen.

“Eta ama?”. “Ez zaio gustatu, badakizu nolakoa den ama. Denbora behar izaten du gauzak ulertzeko”. Gero beso artean bildu ninduen, txikitan bezala. Elkarrekin egin genuen etxerakoa. Atarian agurtu ninduen, eskua altxatuta, “Zaindu ama!”.

Amak ez zuen ezer esan bolada batean. Ez aitaz, ez amatxiz, ez beste ezertaz.

Goiz batez jaiki eta egun on baino lehen amatxirengana gindoazela esan zidan amak. “Aitaren etxea hau da. Eta ama, ama izango du, baina ez dauka han bahituta edukitzeko eskubiderik”. Ziztu batean gosaldia eta konturatzerako amatxiren baserrian geunden. Amatzik beso zabalik hartu gintuen. Itxura oso oneko zegoen. Muxu ematerakoan belarrira esan zidan, izar batek iragarria ziola azalduko ginela eta horrexegatik zeukala kafe egin berria. Mahaiaren bueltan kafesne banarekin galdetu zigun ea nolaz gu han. Amari begietan irakurri nion erantzuna hitz bihurtu baino lehen aurreratu egin nintzaion, eta aita etxera itzultzea nahi genuela aitortu nion amatxiri. Luze egiten ari zitzaigula haren falta eta horixe esatera etorri ginela. “Ulertzen dugu gaizki egon zaren bitartean laguntzera etorri izana, baina bakarrik moldatzeko gai baldin bazara, atzera berriz gurekin nahi dugu”.

Amatxi kafesnari begira geratu zen. Zopek erantzun egokiren bat eskainiko ziotelakoan.

Ama, amatxiri kafesne-zopatan ere etorkizuna irakur zezakeela esaten bazion, irainik mingarriena zein izan zitekeen pentsatzen.

Begiak itxita ikusi nuen dena nik. Pasatakoa etorkizuna baino argiago. Segundo bakarrean.

Denbora gehiago behar izan zuen amatxik. Kafesnea ondo hoztuta zegoen amari zuzen begiratzen ausartu zenerako. Eta hala ere koilaratxoari jiraka jarraitzen zuen, “Nik ez dakit ezer” esan zuenean.

Amak begi zabalik segitzen du oraindik. Ez dio sinistu amatxiri aitari laguntza eskatu ez zionik. Aitaren berririk ez duenik ere ez. Ez dago prest amatxirena aitak alde egiteko asmatutako aitzakia izan zela entzuteko. Nahikoa lan badu oraingoz iragana irakurtzen. Gero etorriko da orainaldia asmatu beharra. Dena etorkizun.